

Hitz eta Pitz

«Hitz eta Pitz» saileko elkarrizketara KALANDRAKA Galiziako argitaletxeko lagunak azaldu dira, haur txikientzako albumgintza modernoaren nondik norakoak azaltzera. Eta aukera hori baliatu nahi izan dugu, orobat, geure Behinolak ilustratu dituzten irudigileei ere galdeketatxo bat egiteko: hor ditugu, beraz, BELEN LUCAS, JOKIN MITXELENA, ELENA ODRIOZOLA, ANTTON OLARIAGA, MIKEL VALVERDE eta JON ZABALETA.



Elkarrizketa:

KALANDRAKA

ARGITALETXEA, ALBUM ILUSTRATUEI BURUZ



Behinola: Nola definituko zenuke album ilustratua? Irakurtzen hasten ari diren haurrentzako irudi asko duen liburua delakoaren topikoa baliogarria da? Munduari begiratzeko leiho bat da? Zertan ezberdintzen da lehen irakurleentzako liburuetatik? Zein litzateke liburu eder hauen izendatzaile komuna?

Kalandraka: Maurice Sendak-ek album ilustratuari buruz eman zuen definizioa gustuko dugu. Album ilustratua osotasun bat, batasun bat dela zioen, testua eta ilustrazioaren arteko josturak nabari ezin dakizkiokeen osotasuna. Ez du ezertarako balio ilustrazio zoragarri batek, eusten dion testu on bat ez badu. Eta aldi berean, ez

du ezta ere balio ilustrazio kaskar batek lagundutako testu onak. Hizkuntza plastikoak eta literarioak elkar ulertu behar dute, elkarren beharra dute, elkar osatu behar dute. Testuak informazioa ematen du, eta irudiak informazio osagarria, ez dute zertan elkar baliogabetu, batak ez dio besteari itzalik egin behar. Album paradigmatico bat, adibidez, Maurice Sendak-en *Piztiak bizi diren lekuan* da. Album honetan irudia hazi eta txikitu egiten da testuak hala behar duen neurrian, giro egokia sortzea lortzen du eta sakonerraino sartzen gaitu istorioan.

~ Hitz eta Pitz: KALANDRAKA ~



Eva Mejuto, Galizoako Kalandraka argitaletxeko arduraduna.
Argazkia: Egunkaria

Behinola: Zeri zor zaio albumean jartzen duzuen arreta berezi hori? Bete beharreko hutsunea ikusten duzuelako ote?

Kalandraka: Argitaletxe izan aurretik, Kalandraka haurrentzako antzerki taldea izan zen, Calvino, Andersen, Ende eta abarren testuak taularatzen zituena. Mundu horretatik eta irakaskuntzarenetik, non Kalandrakako zenbait kide zebilen, hutsune handia ikusten zen lehen irakurleentzako galizieraz eginiko kalitatezko materialean. Horregatik jo genuen albumaren bidetik. Oinarrizko albumak, ukaezinak, Arnold Lobel edo Sendak bezalako erreferentzia egileak galizierara sekula itzuli gabe zeuden, ipuin klasiko asko bezala. Liburuak kalitate estetiko ahalik eta handienarekin eskaintzen ahalegintzea zen gure helburua. Kalitatezko liburuen alde egin genuen beraz: azal gogorra eta kolorea, «liburu-objektua», irakurlea akuilatzen duena, gozatza daramana, altxor txiki bat bailitzan gordetzera bultzatzen duena, haurrek txikitatik ikas dezaten liburu on bat baloratzen (baita irakurtzen ikasi aurretik ere).

Denborarekin konturatu ginen hutsune hori ez zegoela Galizian bakarrik eta

Libros para soñar bilduma *Amets Egiteko Liburuak* eta *Llibres per a Somniar* ere bihurtuz joan zen.

Behinola: Arlo horri dagokionean, nola aldatu da egoera?

Kalandraka: Kalandrakarekin batera, badira argitaletxeak, txikiak bereziki, material ezberdinen alde arriskatu eta apustu egiten dutenak, Kókinos, Media Vaca, ... esate baterako. Baina argitaletxeen ahaleginarekin batera, tartean diren beste sektore batzuen laguntza ere garrantzitsua da, liburu saltzaileena (CEGAL haur seminarioa bereziki), irakasleena, liburuazainena... , egiten ari garena sendotzen baitute.

Behinola: Azal iezaguzue zuen ustetan alde artistikoak, ilustrazioak duen garrantzia.

Kalandraka: Ilustrazioak garrantzi handia du estetika eta ikus trebakuntzarako, irakurketaren maila berean. Liburu baten irakurketak irakurlea harrapatu ahal izatea, horixe da ilustrazio on batek lor dezakeena. Jakina, testu on batean oinarritu behar du, alferrikakoa izango da bestela lana.

Estetika ezberdin baten alde jokatzeko dugu xede. Era guztietako teknikak balio dute ilustrazioan: collagea, eskultura, olio... Ipuin bakoitzak irudi ezberdina eskatzen du. Horrela, txikiak estilo ezberdinak gozatuko dituzte, eta ez estetika uniformatu bakarra. Ahal den neurrian, ilustratzaileari askatasun osoa ematen saiatzen gara, eta egileek eskertu egiten dute, izan ere, gehienetan, haurrentzako ilustrazioa arautuegi egon ohi baita. Batzuetan, testuarekin jolasten dugu, irudiaren barruko maketazioarekin, testuak eta irudiak bat egin dezaten, jolas berean partaide izan daitezten.

🌸 Hitz eta Pitz: KALANDRAKA 🌸

Behinola: Badirudi zuen liburuekin frogatu egiten dela, haur literaturak, ona denean, haurrentzako irakurlegoa gaintzen duela, hau da, helduengana ere heldu daitekeela.

Kalandraka: Egia da batzuetan helduek esan digutela Kalandrakaren liburuak erosten dituztela. Batetik estetikagatik, ipuin bakoitzaren ikuspegi artistikoagatik, baina bestetik izan daiteke ipuin horietako askok bigarren irakurketa dutelako. *Kamila zebra, Máquinas...* bezalako ipuinek irakurketa lehen maila bat dute, umeez gozatzen dutena, baina helduak, edo haurrak berak hazten doan neurrian, gauza berriak aurkitzen ditu, metaforak, bigarren irakurketa...

Ipuinak hazten laguntzen dio haurrari, eta berriz haur izaten laguntzen dio helduari... Badira edozein adinetan goza daitezkeen liburu bibrilak, batzuetan lortzen dira, beste batzuetan ez...

Behinola: Euskaraz ere argitaratzen duzue. Nola ari da irtetzen esperientzia hau?

Kalandraka: Hasieran Kalandrakak galizieraz baino ez zuen argitaratzen. Gure liburuek harrera ona izan zuten publikoaren eta kritikaren aldetik, eta gaztelaniaz, euskaraz eta katalanez ere argitaratzea erabaki genuen.

Euskal Herrian harrera ona izan dugu. Galizian bezala, itzuli gabeko album asko zegoen. Irakasleek, liburuzainek eta gurasoek ondo erantzun dute eta, nolabait, eskertu egiten dute berreskuratze eta berritze lan hau.

Honi dagokionean, zeregin garrantzitsua du Koldo Izagirrek. Koldok ez du itzuli bakarrik egiten, ipuina euskararako egokitu eta berrasmatu egiten du, bere hondar alea jartzen du. Zoragarri menperatzen du hitza, hizkuntza, eta hori eskertu egiten du liburuak.


Behinola: Zein da zuen esperientzia interkultural eta interlinguistikoa?

Kalandraka: Lehen aipatutako klasikoen berreskuratzeaz gain, garrantzitsua iruditzen zaigu trukea, komunikazio handiagoa, egile galiziarrek euskarara, katalanera eta gaztelaniara itzuliak izan ahal daitezen, eta berdin Euskal Herriko eta Kataluniako egileak.

Bide honetan gauza asko dugu oraindik egiteko. Hasieran, bai testu eta bai ilustrazio proposamenak Galiziatik iristen zitzaizkigun nagusiki. Baina Kalandraka ezagun egiten ari den heinean, gero eta gehiago dira beren lanak aurkezten dizkiguten egile euskaldunak, katalanak, ... Eta ildo horretan egin nahi dugu aurrera, interkulturta-suna sustatze bidean.

Behinola: Herri ipuinen egokitzapenak ere egin dituzue, oker ez bagaude. Zein da arlo horretan –egokitzapena eta sortze lana– zuen politika?

Kalandraka: Herri ipuinak eta klasikoak lehen irakurleen ingurura eramatea da gure helburua. Horretarako beharrezkoa da adinari dagokion egokitzapena egitea, baina gainera sonoritate jolasaren bila ere bagabiltza. Liburuak irakurtzeko balio dezaten ahalegintzen gara, baina baita ozenki kontatuak izan daitezen ere, aho tradizioaren baliabideak erabiliz: errepikak, leloak, errimak... Ipuinaren herri tradizioa berreskuratzea beharrezkoa da, eta aldi berean baita ipuinak kontatzeko ohitura zaharra berreskuratzea ere. Haur batek goza dezake liburu batekin irakurtzen jakin aurretik ere, irakurketan lagun duen heldua baldin badu ondoan. Aurrerago, intimoa den zerbaitek bihurtuko du haurrak irakurketa.





Jon Zabaleta. *Etsai zaharra*

Iturriei dagokienean, jatorrizko bertsoiak mantentzearen aldekoak gara. Horregatik daude, *Osaba Otso* bezala, gaizki bukatzen diren ipuinak. Galizieraz egin dugun Txanogorritxoren bertsoan, *Carapuchiña Vermella*, azkenean otsoak neskatoa jaten du. Horrela agertzen da Perraulten bertsoan. Geroago Grimm anaiek gozatu egin zuten eta bukaera aldatu. Ipuinak batzuetan ondo bukatzen dira, beste batzuetan gaizki, bizitza bera bezala.

Behinola: Denborarekin, zuen lanak jaso du noblaiteko ordaina batek ilustrazioaren sari nazionala jasota. Jaso al duzue beste saririk?

Kalandraka: 1999an Oscar Villán-ek Ilustrazioaren Sari Nazionala jaso zuen *Untxitxo txuria* lanarekin. Guretzat oso une garrantzitsua izan zen. »scarrek ilustratzen zuen lehen liburua zen eta Kalandrakak hilabete gutxi batzuk baino ez zeramatzan gatzelaniaz argitaratzen. Jende askok ezagutu gintzan balio izan zuen. 2001ean gure beste lan batek, *Máquinas* liburuak, Hobekien Argitaratutako Liburuaren Sari Nazionalako biga-

ren saria lortu zuen. Eta lan honek, duela aste batzuk, brontzezko domina lortu du *Best Designed Books In All Over The World* nazioarteko lehiaketan. Liburuaren edizioaren kalitatea baloratzen duen sariketa hau urtero antolatzen da Leipzig-eko (Alemania) azokan, eta mundu osoko herrialdeek parte hartzen dute. Guretzat ezusteko handia izan zen, argitaletxe txiki bat sari hau jasotzea, tradizio handia eta argitaratze munduan indar handia duten Alemania eta Ingalaterra bezalako herrialdeekin lehiatzea...

Baina balio handiena duen saria, egunero birlatzen dugun hori, haurrek gure ipuinekin gozatzatzen da. Epaila zorrotzak dira, liburua gustuko ez badute berehala ixten dute.

Behinola: Zuen lanetakoren bat estatutik kanpoko beste hizkuntza batzuetara argitaratu izana ere sari bezala ikus daiteke. Zer nolako esperientzia duzue zentzu honetan? Erakutsi al dituzue lanak beste herrialde europarretan? Zer nolako esperientzia eta harremanak sortu dira?

Kalandraka: Argitaletxearen hastapenetik, baita

~ Hitz eta Pitz: KALANDRAKA ~


lehenagotik ere, Kalandrakako kide edo lagunak joan ohi dira Bolognako bezalako nazioarteko azoketara. Hasieran munduan zehar zer argitaratzen zen ikustera baino ez ginen joaten. Alemania, Frantzia edo Ingalaterran bereziki, album ilustratuaren ekoizpenean espainiar estatuko baino tradizio handiagoko herrialdeak baitira. Laz erabaki genuen, kanpoan argitaratzen zena ikusi eta haiengandik ikasteaz gain, atzerriko argitaletxei gure lana erakustera ere joan gintezkeela. Alemaniarrak, frantziarrak, norvegiarrak eta ingelesak, batez ere, gure lanekiko interesa erakutsi zuten eta horietako asko gure lanak beren hizkuntzetan argitaratzeko aukera aztertzen ari dira. Baina dudarik gabe bitxieta argitaratzaile korearren harrera izan zen. Hango argitaletxe ezberdinek erosi dituzte gure lanen eskubideak. Bat, *Erregearen traje berria*, koreeraz eta ingelesez argitaratua dago Korearako. Eta beste hiru, *Untxitxo txuria*, *Kamila zebra* eta *Non galdu du Ilargik irria?*, datozen hilabeteetan argitaratuko dituzte. Benetan bitxia da, Galiziatik liburu bat egin eta estatu osoan goza daitekeela ikusten duzu. Baina espero ez genuena zen zenbait argitaletxe korearrak ere bat egingo zuela, Kalandrakaren liburuen alde apustu egingo zuela gurearen hain errealitate ezberdinerako.

Behinola: Asmo berriak ere izango dituzue beharbada, zerbait prestatzen arituko zarete, egitasmoak albumaren eremutik haratago zabaldu agian...

Kalandraka: Galizian bilduma berri bat hasi dugu, *Seteleguas*, zortzi urtetik gorako neska-mutilentzat. Formatua aldatu egin da, testu gehiago du, baina azal gogorra mantendu dugu eta ilustrazioa garrantzizko osagai bezala. *Demademora* eta *Os contos do Trasnó Comodín* bezalako bildumekin irakurtzen ikasi eta hazi ziren irakurleen eskaritik jaio zen *Seteleguas*. Eta haiekin haztea erabaki genuen, Janosch, Randall Jarrell, Reiner

Zimnik eta abarren mailako egileen liburuak eskainiz.

Gainera, *Tiramillas* bildumako lehen bi liburuak atera berri ditugu egun hauetan. Hamabi urtetik gorakoentzako bilduma berri bat da, formatu ezberdin baten aldeko apustua, baina ilustrazioa, kolorea eta azal gogorra mantentzen dituen. Oso egitasmo berriak dira oraindik, baina beste hizkuntza batzuetara eramatea ere gustatuko litzaiguke...




Jon Zabaleta. *Eman eta gero*

Galdera-sorta:

JOKIN MITXELENA, ELENA ODRIUZOLA, ANTTON OLARIAGA
BELÉN LUCAS, MIKEL VALVERDE, JON ZABAETA

*Hauxe da gure orain arteko irudigileei egin diegun GALDEKETA,
eta ondoren datoz banan banako erantzunak*



Jon Zabaleta. *Ke gorria botatzen...*

1. Ilustratzaileak modu desberdin batean ekiten al dio albumari edo haurrentzako ohiko liburu bati? Askatasun handiagoa sentitzen-sumatzen al duzu lehenengoan bigarrenengoan baino?

2. Zeintzuk dira zuri gehien gustatu zaizkizun edo eragin dizuten albumak? Gomendatuko al zeniguke baten bat? Zergatik?

3. Nola ikusten duzu albumarekiko editorialek duten politika? Zein hutsune ikusten dituzu? Aurrerapenik antzematen al duzu?

4. Albumean, ilustratzaile ez ezik, hari argumetala ere sortzeko «tentazioa» izan al duzu, hau da, idazle baten testuarekiko atxikimendu behartu hori sentitu gabe?


Jokin Mitxelena

1. Niri, orain arte marraztea suertatu zaidanagatik, liburuak edukiko duen formatoa, horixe da gutxien baldintzatu nauen aldea; txuribeltzeko liburutxo bat izango den edo koloretako album bat, muga tekniko bat besterik ez zait iruditu, sortzeko garaian eman dezakeena baino eragozpen gutxiako jartzen dizkidana.

Horrek baino askoz ere gehiago baldintzatu izan nau testuak, lana errazteko, zailtzeko edo irudien aldea hain irekia utzirik, horregatik buru-hauste gehiago emateko.

2. Denboraldika irudi liburu bat edo bi edukitzen ditut nire bista-bistan jarriak, nire lane-

rako mahai gainean zutik edo horrela. Orain bertan Gioconda Belli-k idatzi eta Wolf Erlbruch-ek marraztutako «Pinpilinpaxuen tailerra» dago hemen. Marrazki hauen argitasun eta grazia imitatu nahian egoten naiz, inoiz lortu gabe, noski. Gero, maiz gertatzen den bezala, haurrei ez zaie ikaragarri gustatzen liburua, eta hemengo hau ere gehiago da helduentzako haur-liburu bat. Berarekin aspertzean aldatuko dut beste batengatik. Besterik ezean, Tomi Ungerer-en edozein liburu jarriko dut. Horrenak bai, badaikit haurrei bai eta niri ere bai, gustatzen zaizkigula. Zergatik ote den hori? Agian, aurrekoak bezala, bere argitasun eta graziaz gain, pozak, haserreak, tristurak, lilurak, argiak, ilunak, jaiotza, heriotza eta haurrak hunkitzen dituen edozein gauza kontu gutxirekin erakusten didalako.



ren aurreko alean Antonio Ventura-ri egiten zenioten elkarrizketan zioen, haur liburuen produkzioa eskolari begira egiten dela gehien bat.

Hemendik ulertzen dut alde pedagogikoari asko, agian gehiegi begiratzen zaiola. Nik ere uste dut badagoela eta badaukagula joera hau, baina niri tokatu zaidanagatik esan behar dut argialetxeetan egiten direla ahalegin batzuk muga hau gain-

ditzeko. Eta, esan bezala, produkzio berri handi honetan nik uste dut joera batzuentzat lekua egin- go dela. Gainera, orain berriro Astrid Lindgren hil delarik, agian suertea daukagu eta haren argitalpen eta berrargitalpenetaz gozatzea opatuko zaigu eta, orduan bai, berriz jakingo dugu haur librearen mundua nolakoa den, hemen ere, bere alde leunetik eta latzetik ere bai.

3. Ez daukat iritzi osatu bat editorialen munduaz. Dena dela: orain dela ez urte askotik hona, nola koloretako argitalpenen kantitatea asko handitu den, horrexegatik bakarrik bada ere, tartean kalitatezko sorkuntza batzuek agerraraztea ekarri du, ikusten denez.

Eta, gai bat bakarrik ukituko dut: Behinola-

4. Niretzat, textuarekiko atxekimendu hori, muga bat beharrean marrazteko leku bat da, gehienetan ederra, gainera. Beraz, hortik ez daukat ez liberatzeko eta ez ateratzeko beharrik! Eta, halaxe izan da, leku bat dela diodanez, paisaiatzeko egin dut neure gidoi edo testu bat, eta orduan, berriz ere atxiki behar natzaio beste idatzitzi horri.

Elena Odriozola

1. Nik uste dut album bat egitea desberdina dela batez ere emaitzagatik: formatoa, diseinua, papera, ilustrazioa... desberdina da. Suposatzen dut guzti honek importantzia duela liburu bat egiteko orduan.

Beste aldetik, inoiz ez dut askatasun eza sentitu liburu bat ilustratzeko orduan. Batzuetan mugatuta sentitu zaitezke bilduma batek duen di-

seinuagatik, baina berdina gertatu daiteke album batekin. Zuri diseinua eta guzti egiten uzten badizute, orduan, beste gauza bat da, hori bai dela askatasuna.

2. Zoragarriak dira Media Vaca argialetxeak ateratzen ditunak, oso zainduak daudelako: paper mota, letra tipoak, marrazkiak... oso bereziak



dira. Ezingo nuke bat bakarrik gomendatu. Argitaletxe honetatik aparte asko dira gustatzen zaizkidanak, baina bereziki aukeratuko ditut Lisbeth Zwerger ilustratzailearen albumak. Niri gehien gustatzen zaidan ilustratzailea da, eta falta zaidan bere liburu bat ikusten dudana bezain laster erosten

dut (zorritzarez, aspaldian ez dut berririk ikusten).


3. Hutsuneen aldetik esango nuke bai testu eta ilustrazioen kalitatea askotan hobetu daitekeela. Album asko ilustrazioaren aldetik zoragarriak dira, baina irakurtzean, testua marrazkiak egiteko aitzakia bat besterik ez dela iruditzen zait.

4. Bai, eta tentazio handia. Lehenago esanduan bezala, lan osoa egitea gustatuko litzaidake. Testua eta baita diseinua ere. Edo testurik gabe, ilustrazioak soilik dituen album bat.

Antton Olariaga

1. Ilustratzaileak modu desberdinean egiten dio aurre lan mota bakoitzari. Hasteko, kontutan hartu behar duelako zein izango den jokatzeko zelaia: besteek jarritakoa edo eta berak markatutakoa. Liburuak bere nortasun propioa izaten du. Ezin zaio horri traizio egin. Formatoa, koloreak edo eta zuri-beltzarena, paper klasea, orrialde kopurua, diseinua, balizko irakurlea, salneurria, testua eta marrazkien arteko harreman kuantitatiboa, ... guztiak dira kontutan hartzeko parametroak. Eta gehienetan argitaletxearen esku daude erabakiak. Badira, hala ere, autore-liburuak, pertsonalagoak, bildumetatik kanpo geratzen direnak. Horrelako aukerak gutxitan eskuratzen dituzu.

Albumak, erlazio berezia dute marrazki eta testuen artean. Alde grafikoa oso zabala izanik, modu berezi batean jarri behar duzu zure ganbarara. Irudietan pentsatu duzun istorioak gehiago eskatzen dizu eta zuk modu aberatsago batean



adierazi eta komunikatu behar duzu «ikusi» duzuna. Girotze lanak, adibidez, garrantzi handiagoa hartuko dizu. Baita pertsonaien nortasunari lotutako keinu eta espresioak ere. Sekuentzia, sintaxi bisuala, modu garbian antolatu behar duzu. Eta ondo pasa, besteek ere disfruta dezaten.

Askatasun kontua antzekoa da lan guztietan. Benetako sormen-lana denean. Tresna eta adierazpen bideak dira aldatzen direnak. Ohiko liburuetan ere asko zaindu behar dira kontu guzti hauek. Nahiz eta zure presentzia ttikiagoa izan liburuan, garrantzizkoa da. Markatu egiten du istorioa. Eskala kontua besterik ez dela iruditzen zait. Liburu guztietan parekoa, sormen-lana den aldetik.

2. Asko dira gustuko ditudan albumak. Eta asko «helduentzat» eginak. Zerrenda luzeegia izango litzake.

3. Argialetxeen politika «beldurtia» iruditzen zait. Orain dela hamabost urte gauza gehiago sortzen ziren, bereziak, koloretan, formato ausartetan, orain baino. Albumen aukera oso eskasa izaten da. Agian beste modu batean «ulertu» dute haur gazteenen mundua. Agian parametroak aldatu egin zaizkie. Eta hala ere, aldi behin, ikusten duzu gauzak, egin, egiten direla, eta oso ondo gainera. Agian linea berezi-erdi-publizita-

rio-nortasuneko produktuak behar dituztenean. Deus ez dakit Ekonomiaz.

4. Neronek hari argumentala sortzeko tentazioa gutxitan etorri zait. Haur eta gazte literaturan, jakina. Nahikoa lan badut neure mataza plastikoarekin bidean ez galtzen. Komikietan, bai. Hor, bai. Baina hori beste gerra bat da.

Belen Lucas

1. Haur literaturaz ari baldin bagara, ez dut uste album batean edo bestelako liburu batean ilustrazioak lantzeko modua desberdina denik. Formatuak ez du askatasun gehiagorik ematen. Liburu batean espazio txiki bat izan, eta neure lanarekin poz-pozik gera naiteke; album bateko orrialde handietan, aldiz, halako gogobetetasunik hartu ez izana gerta daiteke. Albuma helduen-tzako denean, ordea, besterik da: ilustrazioak formatuan ez ezik edukietan ere hazten dira, testuei gertatzen zaien bezala; nahi duguna marrazteko askatasun handiagoa daukagu, ez dago gure lana ulertzeko gaitasun jakin bat daukan adin-tarte bat.

2. Toni Morrison-en *La gran caja* (*Kutxa handia*) gomendatzen dizuet; ilustrazioak Giselle Potter-enak dira (Ediciones B). Ilustrazioak finfinak dira, oso originalak, eta testua oso aberatsa; emakumezko egile hori literaturako Nobel sariduna eta eleberriko Pulitzer sariduna da.



3. Argialetxeen politika, oro har, zuzena da: enpresa batek ez du zertan merkaturatu etekinik emango ez dion produkturik. Beste gauza bat da egile eta ilustratzaileok geure lana formatu handietan, material oneko edizio zainduetan ikusi nahi izatea... Produktu garestia da hori eta, beraz, gutxi saltzen dena. Beti egoten da argialetxeren bat gehiago arriskatzen duena, edizioak gehiago zaintzen dituen, egileak, itzultzaileak eta ilustratzaileak aukeratzen zorrotzagoa dena. Beste edozein arlotan gertatzen den bezala, argitaratze lana nork bere ikuspuntutik egiten du. Baina, gehienetan, datu ekonomikoek erabakitzen dute album bat argitaratzen den ala ez.

4. Esan dezaket aspaldi erori nintzela haurren-tzako testu bat idazteko tentaldian. Album bat da, eta oso ondo gordeta daukat, noiz argitaratuko zain. Geure istorio bat sortzea desafio moduko zerbait da, idazlearentzat bere testuak ilustratzeko izan daitekeen bezala. Literaturak adibide ugari dauka bi kasuetarako.

Mikel Valverde

1. Literatur liburu bati buruz ari garenean, liburu ilustratuak ia beti bilduma baten barnean argitaratzen dira. Eta bildumaren maketak, neurri zehaztuekin, argi uzten du espazioak zeintzuk diren eta, batzuetan, zenbat marrazki sartu behar diren. Askotan, bildumaren batasuna lortzeko dauden neurriak gorabehera, ilustratzaileak askatasun osoa du ilustrazioak testuan kokatzeko.


Album bat ilustratzean, aldiz, paperaren espazio guztia dago ilustratzailearen esku, eta galdu egiten da testuen «kaxa» kontzeptua. Gainera, ilustrazioaren luze-zabalak handiagoak izaten dira.

Beraz, aldea egon badago, baina zenbaitetan ez da hainbesterako. Zenbaterainoko askatasuna duzun, espazioari eta ilustrazioaren kopuruari dagokienean, testua ilustratzeko

Album ilustratuaz ari garenean, beti pentsatzen da orrialdetik gorako neurria izango duela. Hala ere, badira espiritu bereko lanak, formato txikiagoan argitaratuak, baina ez dira albumtzat jotzen.

2. Betiere erakarri izan naute testua eta ilustrazioa orden zehaztuegian txertatzen ez diren liburuak. Liburu horiek gogoko ditut erritmoa ilustrazioek, testuek, zuriguneez markatzen dutelako. Hori gutxitan ikusi dut. Baina horietako bat izan da Loustal-ek –ilustratzaile eta marrazkilari frantsesa– apaindutako *Venganza en Marruecos* album edo narrazio ilustratua.

Ez dakit albumtzat jo daitezkeen, baina oso gogoko ditut ilustrazio eta bozeto eta bidaia liburuak ere. Zumetarenak, Moebius, Loustal, Tardirenak gustatzen zaizkit.



Atsegin handia ematen didaten beste bi autore ere aipatu nahi nituzke: Francois Place (bere bidaia liburuarekin) eta Battut.

3. Argitaletxeek oso album gutxi argitaratzen dute. Hori horrela da. Eta hori da nik ikusten dudana hutsunea. Hala ere, ez dakit zenbateraino hori argitaletxeen ardura den. Beharbada beraiantzat albumak ar-

gitaratzea ez da oso errentegarria –edo batere ez– izango.

Oro har, ez dut uste liburuen ilustrazioa oso baloratuta dagoenik. Horri lotuta dago pintura bezalako diziplinei ematen zaien balio eskasa. Zirraren imajina eta ikusgarritasuna besterik baloratzen ez diren honetan, balizko eroslearen erreakzioa *hain letra gutxiko* liburuan dirua ez xahutzea da.

4. Tentazioa baino gehiago, ideia-ilusio hori izan dut. Nire lehen testu idatzi-ilustratua *Gans terren ihesi* (SM) izan da, komikia den Jon Arkakusoren istorioa. Komikia egitea erabaki nuen, mundu horretara ohituta nagoelako.

Horrekin batera, badut irudi liburu bat egiteko proiektua, zeren beharbada hori baita gehien erakartzen nauen formatoa. Ez daukat argi proiektua album formatoan gauzatuko den edo ez, batez ere hori istorioaren –eta beronen hedaduraren– araberakoa delako.

Jon Zabaleta

1. Bai, hori normala da. Testu motza dagoe-
nean eta espazio handi bat irudiarentzat, marra-
zkilaria mugitzen da mundu zabalago eta irekia-
go batean.

Bai, askatasuna handiago da sujerentzia eta
irudimenaren uretan ondo igeri egiten baduzu.

2. Niretzako, nire istorioak hitzik gabe kon-
tatu nahi nituenean, nire lehenengo experimen-
tuetan oinarrizko liburu bat hasieran eragin han-
dia izandu zuena, *La manzana roja* izandu zen,
eta bere egilea Iela Mari.

Zergatik? Momentu hartan ez nuelako ikus-
ten hitzaren beharrik, marrazkiak soilik traslada-
tzen zidan orri batetik bestera, sekuentzi batetik
bestera.

3. Hasieran itxaropena handia nuen eta pro-
mesa batzuek ere jaso nituen, baina denbora joan
da aurrera eta nik orduan neuzkan lanak bazte-
rrean gelditu dira betirako, denborarekin kontu-



Jon Zabaleta



Jon Zabaleta. *Eman eta gero*

ratu naiz komertzializazioak eragin handia duela
argialetxetan, eta zer edo zer egiten hasi diren-
nean izandu da hemendik kanpo asko bultzatu
dutelalo liburu kontzepto hori.

4. Betidanik erabili ditut blok txiki batzuk,
orri zurikoak, eta bertan sailu naiz kontaktzen iru-
dien bidez bai marrazkia, fotokopia, collage, orriz
orri, jostatuz eta lotuz okurritzen zizaizkidan his-
toriak hari argumental batekin oso modu
zabalean, azken denboraldi honetan batzuetan
atrebitu egiten naiz idaztera, hasieran marrazkiz
eta kolorez soilik betetzen nituen orri zuriko blok
txikiak.